



MUSIKA, ANTZERKIA ETA DANTZAREN ALORREAN LAN EGITEN DUTEN ELKARTEEI DIRULAGUNTZAK EMATEKO 2023 URTEKO DEIALDIA

1.- Xedea

Deialdi honen xedea ondoren adierazten diren dirulaguntzak arautzea da:

- Musika, antzerkia eta dantzaren alorreko Zumaiako irabazi asmorik gabeko kultur elkarteei norgehiagoka erregimenean emango zaizkien dirulaguntzak, urteko jarduera garatzeak edo/eta egitasmo eta ekitaldi zehatzak antolatzeak sortzen duen defizita arintzeko.

Dirulaguntza hauek, 2024-2027 epealdiko Zumaiako Udalaren Dirulaguntzen Plan Estrategikoaren IV. eranskinean jasota daude. (2023ko abenduaren 20ko Gipuzkoako Aldizkari Ofiziala, 243 Zk.).

Oinarri hauek arautzen dituzten laguntzak emango dira berariazko programak edo zerbitzuak aurrera eramateko, bai elkarteentzat beraientzat, bai elkarte jardueraren xede diren kolektiboentzat zuzendutakoak, betiere Kultura Sailaren helburuekin bat datozen neurrian.

Berdintasuna bermatuko da Berdintasun Legea 1/2023 Legegintzako Dekretua, martxoaren 16koa, emakumeen eta gizonen berdintasunerako eta emakumeen aurkako indarkeria matxistarik gabe bizitzeko Legearen testu bateginak jasotzen duenari jarraituta, zehazki, 28. artikuluan oinarrituta, kultura jarduerari buruzkoa.

Dirulaguntzaren kontzeptu guztiak 2023. urtean zehar burutu beharko dira.

2.- Oinarri arautzaileak

Honako hauek arautuko dituzte dirulaguntza hauek:

- Dirulaguntzen 38/2003 Lege Orokorra, azaroaren 17koa.
- Dirulaguntzen Araudi Orokorra, 887/2006 Errege Dekretuak onartua, uztailaren 21ekoa.
- Zumaiako Udalak eta bere erakunde autonomoek dirulaguntzak emateko ordenantza orokor arautzailea (2020ko abuztuaren 11ko Gipuzkoako Aldizkari Ofiziala, 151. Zk.).
- 2024-2027 epealdiko Zumaiako Udalaren Dirulaguntzen Plan Estrategikoa (2023ko abenduaren 20ko Gipuzkoako Aldizkari Ofiziala, 243 Zk.).
- Berdintasun Legea 1/2023 Legegintzako Dekretua, martxoaren 16koa, emakumeen eta gizonen berdintasunerako eta emakumeen aurkako indarkeria matxistarik gabe bizitzeko Legearen testu bateginak jasotzen duena.

3.- Aurrekontuko diru-hornidura:

Deialdi honetan zehazten diren dirulaguntzak aurrekontuko honako partidatik emango dira:

- 1 0300.481.334.01.01 2023 (440) Musika eta dantza elkarteei dirulaguntzak 38.000 €

Dokumentu kod.	2023UDIR0003-S23/00011
CUDO kodea	000.0081.AAAADYV9.N.e92M
Dokumentu Egiaztatzailea Verificador de documentos	https://uzt.gipuzkoa.eus/PortalV/r/eu/81/AAAADYV9N.e92M



4.- Diruz lagun daitezkeen gastuak

Dirulaguntza jaso dezaketen gastuak honakoak dira: diruz lagundutako jarduerarekin bat etorri eta oinarri hauetan finkatutako epeen barruan egiten direnak, hala nola: jarduerak sustatu eta hedatzeko programak edo ekintzak, jaialdiak, formakuntza, folklorea, grabazio nahiz ikus entzunezkoak, eta arte eszenikoekin zerikusia dutenak ere (betiere, azaroaren 17ko 38/2003 Legeak, 31.art., Dirulaguntzen Lege Orokorrak, xedatzen duenarekin bat etorritik gero, hau da, onura publikoa edo interes soziala edo helburu publikoa duen jarduera sustatzea edo bultzatzearekin zerikusia badute).

5.- Eskabideak aurkezteko tokia eta epea:

Eskabideak aurkeztu daitezke , pertsona fisikoek presentzialki edo telematikoki, eta pertsona juridikoek soilik telematikoki:

Presentzialki Zumaia Udal Erregistroan edo Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legearen 16.4 artikuluan aurreikusitako beste edozein modutan aurkeztuko beharko dira.

Telematikoki, udalaren egoitza elektronikoan sartuta, haren webgunearen bidez (www.zumaia.eus).

Eskabideak aurkezteko epea 15 egun naturalekoa izango da, deialdi hau Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera.

6.- Eskabideak eta aurkeztu beharreko agiriak

Eskabideak deialdi honen I. eranskinean agertzen den eredu normalizatuaren bidez egingo dira.

Zumaia Udalak, NISAren Nodoaren bidez, beharrezkoak diren egiaztapenak eta kontsultak egingo ditu interesdunek administrazioaren esku jarri dituzten datuei buruz. Horretaz gain, euren jarduerak Kulturaren eskumenen arloan egiten dituzten irabazi asmorik gabeko erakunde eta elkarteentzako dirulaguntzaren tramitazio administratiboa egiteko beharrezkoak diren egiaztapen guztiak ere egingo ditu. Horregatik, elkarreragingarriak izan daitezkeen datuak eskatzeari utziko zaio, baldin eta interesduna datu horiek erabiltzearen aurka agertzen ez bada berariaz; kasu horretan, dagozkion datuak edo dokumentuak aurkeztu beharko ditu.

Administrazio publikoen arteko datu- bitartekaritzarako oinarria urriaren 1eko 39/2015 Legearen 28. Artikuluan zehazten da, non aitortzen baita herritarrek eskubidea dutela ez aurkezteko edozein administrazio egindako dokumentuak, jatorrizko dokumentuak, ezarri beharrekoa den araudiak eskatzen ez dituen datuak edo dokumentuak, edo interesdunok aurretik edozein administraziori emandakoak.

Era berean, 40/2015 Legearen 155. Artikuluak adierazten duena gogora ekarriz, administrazioek elkarri lagundu behar diote datu-trukean, eta herritarrei buruzko datuak haien esku daudenak, eman behar dituzte.

Dokumentu kod.	2023UDIR0003-S23/00011
CUDO kodea	000.0081.AAAADYV9.N.e92M
Dokumentu Egiaztatzailea Verificador de documentos	https://uzt.gipuzkoa.eus/PortalV/r/eu/81/AAAADYV9N.e92M



Horren ildotik, Zumaiako Udalak honako baldintza hauek egiaztatuko ditu deialdi honetako dirulaguntza eskuratu ahal izateko, NISAren, datuen eta beste administrazio batzuen bitartekaritzarako plataformaren zerbitzuen bidez:

- Elkaratearen arduran duen pertsonaren NANA edo agiri baliokidea.
- Zerga betebeharrak beteak dituela.
- Gizarte Segurantzaren aurreko betebeharrak egunean dituela.

Zumaiako Udalak ofizioz egiaztatuko du udalarekiko betebeharrak betetzen direla.

Hona hemen Eusko Jaurlaritzako Elkarteen Erregistro Nagusiaren bidez egiaztatuko dituenak:

- Eusko Jaurlaritzako Elkarate eta Entitateen Erregistroan inskribatuta dagoelako egiaztagiria.
- Eskaera egiten duen erakundearen estatutuak.

Era berean, Udalak ofizioz egiaztatuko du, Zumaiako Udaleko elkarteen erregistroan izena emanda duten elkarateekiko, ondorengoa:

- Identifikazio fiskaleko kodea.

Ezin bada datuen artekaritza plataformen bidez edo hartarako gaitutako bestelako sistema elektronikoen bidez kontsulta egin, salbuespen moduan eskatu ahal izango zaio eskatzaileari dokumentazio hori aurkezteko.

Eskabidearekin (I. eranskina) batera, agiri hauek aurkeztu beharko dira:

- Jardueraren memoria.
- Diruz laguntzeko aurkezten den programari dagokion gastuen eta diru-sarreraren aurrekontua (II. eranskina).
- Elkarate edo entitatearen urteko gastuen eta diru-sarreraren aurrekontua.
- Beste instituzio eta erakundeetan egin diren dirulaguntza eskaerei buruzko adierazpena edo, halakorik bada, jaso diren dirulaguntzena (III. eranskina).
- Zinpeko aitortpena, dirulaguntza edo laguntza publikoak jasotzeko aukera galtzearekin zigortuta ez dagoela edo horretarako gaitasunik ez duela esanez, legeko debekuan sartuta ez dagoela azalduko duena. Debeku horietan barne izango da sexuagatiko diskriminazioaren ondorioz jasotako debekua, 1/2023 Legegintzako Dekretua, martxoaren 16koa, emakumeen eta gizonen berdintasunerako eta emakumeen aurkako indarkeria matxistarik gabe bizitzeko Legearen testu bategina onartzen duenaren 23.2 artikulua arautzen duen ildotik.
- Proiektuan genero ikuspegia noraino kontuan hartzen den zehaztu beharko da (IV. eranskina).
- Euskararen tratamendua jardueraren hedapenean eta elkaratearen erabileran (V. eranskina).
- Hirugarrenari alta emateko datuak (VI. eranskina).

Dokumentu kod.	2023UDIR0003-S23/00011
CUDO kodea	000.0081.AAAADYV9.N.e92M
Dokumentu Egiaztatzailea Verificador de documentos	https://uzt.gipuzkoa.eus/PortalV/r/eu/81/AAAADYV9N.e92M



Edonola ere, aurkeztutako jarduerari buruzko dokumentazioaz gain, Udalak bestelako informazioa eskatu ahal izango die eskatzaileei, jarduera behar bezala baloratzeko.

Eskabidea ez badago behar bezala beteta edo ez baditu ezarritako baldintzak betetzen, instrukzio organoak errekerimendua egingo dio eskatzaileari, gehienez ere hamar egun baliadun luzaezineko epean gabezia konpontzeko, eta azalduko du, horrela egiten ez badu, ulertuko dela atzera egiten duela bere eskabidean, eta besterik gabe artxibatuko da, lehendik Ebazpena emanda, APELen 21. artikuluan aurreikusitako baldintzetan.

Organo izapidegileak edozein unetan beharrezkoa ikusten duen jatorrizko dokumentazioa edo dokumentazio osagarria jaso ahal izango du hobeto egiaztatzeko betetzen direla dirulaguntza hauek arautzen dituzten arauetan eskatutako baldintzak.

7.- Dirulaguntzak adjudikatzeko balorazio irizpideak

Dirulaguntzak emateko ondorengo alderdiak hartuko dira kontuan:

1.- Urtean zehar Zumaiako Udaleko Kultura Sailarekin eta beste elkarte batzuekin egindako elkarlana, koordinazioak, jarraipenak, proposamenak, informazio-trukatzeak: 6 puntu.

2.- Urtean zehar elkartean bazkide gisa, ekitaldietan parte hartzen edo bere jardueraren eragina izango duten pertsonen kopurua: 6 puntu

3.- Elkarateak urtean zehar herrian betetzen duen egitaraua edo egiten dituen jarduera zehatzak: 50 puntu.

Elkarteen egitaraua eta egiten dituzten jarduerak baloratuko dira oro har, baita Zumaian berriazko programak egitea eta herrian programa edo jarduera esperimental eta berritzaileak ezartzea ere.

4.- Aurrekontua; kopuruak, sarrerak, izaera orekatua: 20 puntu.

- Ekitaldiak eta gastuen arteko proportzioa: 10 puntu.
- Autofinantziazio maila: 10 puntu.

5.- Elkarateak urtean zehar herritik kanpo betetzen duen egitaraua edo egiten dituen jarduerak: 6 puntu.

6.- Udalaren zeharlerroak diren aldetik, elkarateak Genero-berdintasuna eta Euskara bultzatzeko dituen irizpideak eta aurreikusitako neurriak: 6 puntu.

7.- Elkarte edo entitateak Zumaiarentzat aurreikusten dituen helburu orokorrak eta zehatzak: 6 puntu.

8.- Instrukzioa

Instrukzioa eta proposamena indarrean dagoen araudian ezarritakoaren arabera egingo da.

Organo eskudunak:

Dokumentu kod.	2023UDIR0003-S23/00011
CUDO kodea	000.0081.AAAADYV9.N.e92M
Dokumentu Egiaztatzailea Verificador de documentos	https://uzt.gipuzkoa.eus/PortalV/r/eu/81/AAAADYV9N.e92M



- Instrukzioa: Kulturako arduraduna.
- Ebazpena: Alkatetzari edo Tokiko Gobernu Batzordeari egokituko zaio, Udalaren administrazio antolamenduan une bakoitzean indarrean diren eskumenei eta aldi baterako eskuordetzei jarraiki.

Dirulaguntza emateko prozedura izapidetzea Kultura Sailaren eginkizuna da, eta hari dagokio behar diren ekintza guztiak egitea, ofizioz, ebazpen proposamena gauza dadin beharrezkoak diren datuak zehaztu, eskuratu eta egiaztatzeko.

Kultura Sailak dirulaguntza eskaerei buruz egingo duen aurre ebaluazioarekin hasiko da instrukzio fasea. Aurre ebaluazioak egiaztatuko du, eskatzaileak dirulaguntzaren onuradun izaera eskuratzeko ezarrita dauden baldintza guztiak betetzen dituela eta aurkeztutako dokumentazioa osatua eta egokia dela.

Kulturako arduradunak dirulaguntza deialdira aurkeztutako eskaeren balorazio txostena egingo du aipatu balorazio irizpideen arabera.

Eskaerak ebaluatu ondoren, eta Kulturako Batzordean informatu ondoren, ebazpen proposamena egingo du, behar bezala arrazoituta, eta organo eskudunari helaraziko dio ebazpena eman dezan.

Ebaluazioaren emaitza dirulaguntza ez ematekoa baldin bada, dagokion ebazpena eman aurretik, 10 eguneko epea eskainiko zaie interesdunei entzuteko tramitean nahi dituzten alegazioak aurkez ditzaten.

9.- Ebazpena

Alkatetzari edo Tokiko Gobernu Batzordeari egokituko zaio ebaztea, Udalaren administrazio antolamenduan une bakoitzean indarrean diren eskumenei eta aldi baterako eskuordetzei jarraiki.

Prozeduraren ebazpena emateko eta jakinarazteko gehieneko epea 3 hilabetekoa izango da. Eskabideak aurkezteko epea amaitzen den egunetik aurrera zenbatuko da epea. Gehieneko epe hori igaro eta ebazpena jakinarazi ez bada, interesdunek dirulaguntza emateko eskaera administrazio-isiltasunez ezetsizat jo ahal izango dute.

Prozeduraren ebazpena interesdunei jakinaraziko zaie, Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legearen 40. artikuluan xedatutakoaren arabera.

10.- Dirulaguntzaren zenbatekoa eta ordainketa

Dirulaguntzak ezingo du inola ere eskatzaileak egingo duen jardueraren gastua baino handiagoa izan (ez bere horretan, ez eta beste Administrazio Publiko edo bestelako erakunde publiko nahiz pribatuk emandako dirulaguntzak gehituta).

Ordainketa 2 zatitan egingo da erakunde onuradunaren titulartasuneko kontu batera banku-transferentzia bidez:

- Lehenengo ordainketa: onartutako dirulaguntzaren %70 ebazpena jakinarazten

Dokumentu kod.	2023UDIR0003-S23/00011
CUDO kodea	000.0081.AAAADYV9.N.e92M
Dokumentu Egiaztatzailea Verificador de documentos	https://uzt.gipuzkoa.eus/PortalV/r/eu/81/AAAADYV9N.e92M



denean.

- Bigarren ordainketa: gainerako %30 dirulaguntza justifikatzeko eskatutako dokumentazioa aurkeztu ondoren.

Deialdiko xede diren ekintzak egiteko behar diren diru-zenbatekoen ordainketa aurreratuak egitea baimen dezake alkate-udalburuak. Dirulaguntzei buruzko Lege Orokorrak, 38/2003 legeak 34. artikulua egiten duen araupenaren arabera egingo dira aurrerapen horiek. Horrez gain, udaleko dirulaguntzen ordenantza arautzaileak dioena izango da kontuan.

11.- Zuriketa

Behin diruz lagundutako jarduera amaituta, ekintzen memoria eta frogagiriak aurkeztuko dira, betiere jarduera burutzen den urtearen hurrengo urtarrilaren 15a baino lehen.

Ondorengo agiriak aurkeztu beharko dira dirulaguntza justifikatzeko:

a) Diruz lagundutako programa edo jardueraren memoria xehakaturia, euskaraz. Bertan adierazi beharko dira egindako jarduerak eta lortutako emaitzak.

b) Justifikazio-memoria ekonomikoa, jatorrizko egiaztagiriez osatua.

- Aurkeztutako fakturen zerrenda zenbakitua + faktura guztiak + ordainagiriak. Betiere faktura hauek dagozkien zergak aplikatuta izan beharko dituzte.
- Fakturak eta zerga edo atxikipeak ordaindu izana egiaztatzen duten agiriak.
- Diru-sarreraren eta gastuen balantze ekonomikoa. Diruz lagundu den jarduera finantzatzeko baliatu diren bestelako diru-sarrera edo dirulaguntzen zerrenda xehakaturia, haien zenbatekoak eta jatorria adieraziz.
- Jarduera bererako beste erakunde publiko edo pribatu batzuetatik jasotako dirulaguntzak edo laguntza ekonomikoak egiaztatzen dituzten agiriak ere aurkeztuko dira edo, horrelakorik ezean, ez dela beste dirulaguntzarik jaso egiaztatzen duen erantzukizunpeko adierazpena.
- Jasotako dirulaguntza osoa diruz lagundutako jarduerak gauzatzeko erabili dela egiaztatzen duen egiaztageria, dirulaguntza jaso duenak egina.
- Zerga-betebeharrak eta gizarte segurantzarekikoak egunean betetzen direla egiaztatzen duen agiria, baldin eta goian zehaztu den moduan Udalak kontsultatzeko aukeraren aurka azaltzen bada.
- Halakorik bada, aplikatu gabeko diru-gerakinen itzulerari dagokion ordainketa-agiria eta haiengandik eratorritako interesena.

c) Dokumentazio grafikoa (kartelak-egitarauak) edo ikus-entzunezkoa (halakorik bada).

Horrez gain, Udalak Dirulaguntzei buruzko Lege Orokorrak, 38/2003 legeak bere 30., eta 31. artikuluetan egiten duen araupenaren arabera, beharrezkoak diren dokumentuak eskatzeko aukera izango du.

12. Onuradunen betebeharrak

Dirulaguntza emanez gero, entitate onuradunaren obligazioak izango dira, arau orokorretan adierazitakoez gain, honako hauek:

Dokumentu kod.	2023UDIR0003-S23/00011
CUDO kodea	000.0081.AAAADYV9.N.e92M
Dokumentu Egiaztatzailea Verificador de documentos	https://uzt.gipuzkoa.eus/PortalV/r/eu/81/AAAADYV9N.e92M



— Dirulaguntza jaso duen jarduera edo proiektua garatzea eta oinarri hauek erabakitako moduan arazoitzea.

— Administrazioak burutu beharreko egiaztatze-jarduerak eta udal kontu-hartzailetzak egin beharreko finantzen kontrolak erraztea.

— Jarduera berak jaso dituen laguntza publiko guztiak jakinaraztea erakunde emaileari. Jasotako laguntzen guztizko zenbatekoa inoiz ezingo da izan jardueraren kostua baino handiagoa.

— Dirulaguntza ematean kontuan hartua izan zen egoera bat aldatuz gero, aldaketa horren berri ematea.

— Erakunde emailearen ardura duen talde teknikoari galdetu eta horren baimena lortu gabe, aurreikusitako gastuak edo dirulaguntza jaso duen proiektua nabarmen aldatzen badira, jasotako kopuruak itzuliko dira.

— Diruz lagunduko diren jarduerak Zumaia Udalak indarrean dituen euskara eta berdintasun irizpideak betetzea.

13.- Publizitatea

Oinarri hauen baitan emandako dirulaguntzen onuradunek jarduerak iragartzeko erabiltzen dituzten euskarri guztiak euskaraz edo ele bitan (euskara lehenetsita) izango dira.

Onuradunek adierazi egin behar dute beren egitarauak edo jardunak Zumaia Udalaren dirulaguntza jaso duela: beharrezkoa izango da Udalaren logoa azaltzea jarduerak iragartzeko prestatzen dituzten kartel, egitarau, informazio eta hedabide guztietan.

14. Dirulaguntza itzultzea

Dirulaguntza eman deneko jardueraren gastuaren aurrekontuari dagokion gastua justifikatzen ez bada, dirulaguntza osoa edo zati bat eta dagokion berandutze-interesa itzuli beharko da, Zumaia Udalaren dirulaguntzak arautzen dituen ordenantza 25. artikulua arautzen duen prozedura jarraituz.

15. Oinarrien interpretazioa

Oinarri hauen interpretazioaren harira edozein zalantza sortuz gero, diru-laguntza emateko ardura duen organo berari dagokio horri buruz erabakitzea

Dokumentu kod.	2023UDIR0003-S23/00011
CUDO kodea	000.0081.AAAADYV9.N.e92M
Dokumentu Egiaztatzailea Verificador de documentos	https://uzt.gipuzkoa.eus/PortalV/r/eu/81/AAAADYV9N.e92M

I. ERANSKINA
DIRULAGUNTZAK ESKATZEKO ORRIA

NORBERAREN DATUAK				
Izen-abizenak		NAN-AIZ-Pas.-IFK		
Sexo	Emakumezkoa	Gizonezkoa	Ez binarioa	
Interesduna naiz Honako hau ordezkatzan dut		NAN-AIZ-Pas.-IFK		
Elkartearen egoitza:				
Elkartean duen kargua:				

JAKINARAZPENETARAKO DATUAK			
Kalea, ataria, solairua, aldea		Herria	PK
Probintzia	Telefonoa	Helbide elektronikoa	

BANKU DATUAK (dirulaguntza sartzeko)	
Banketxea	Kontu zenbakia (IBAN barne)
	E S

Dirulaguntza eskaeraren datuak:	
Proiektu-jardueraren izena:	Eskatzen den zenbatekoa:

Dokumentu kod.	2024UDIR0001-A24/01659
CUDO kodea	000.0081.AAAAFWFC.C.Y4Kt
Dokumentu Egiaztatzailea Verificador de documentos	https://uzt.gipuzkoa.eus/PortalV/r/eu/81/AAAFWFC.Y4Kt

**BAIMENAK****(Baimentzen ez den kasuetan, egoera egiaztatzeko dokumentazioa aurkeztu beharko da)**

Nire erantzukizunpean adierazten dut nik ordezkatzeko dudako elkarfean ez dagoela sartuta dirulaguntzak lortzeko oinarri orokorretako 11. artikuluan aipatzen diren debeku arrazoiak.

BAI

EZ

ESKAERA HONEN ERANTZUNA ELE BIETAN JASO NAHI DUT (Ezer adierazten ez bada, euskara hutsean egingo da)

BITARTEKOTZAKO PLATAFORMATIK ESKATUKO DIREN ZERBITZUAK

Eskatzaileari informatzen zaio, Zumaia Udalak bere dirulaguntzen ordenantza orokorrean ezarritako baldintzen datuak zuzenean egiaztatuko dituela datuen arloko bitartekotzako plataformatik eta beste administrazioetatik. Hala ere, egiaztatze horri uko egiteko aukera izango du eskatzaileak. Kasu horretan, dagokion dokumentazioa aurkeztu beharko du.

- EAEko Foru Aldundiak - Zerga-betebeharren ordainketa egunean izatearen kontsulta
- Gizarte Segurantzaren Diruzaintza Orokorra - Gizarte Segurantzarekiko betebeharren ordainketa egunean izatearen kontsulta
- Poliziaren Zuzendaritza Nagusia - Nortasun-datuen kontsulta/egiaztatpena

Aurka nago eta eskatutako dokumentazioa aurkeztu dut

Zumaian, 20 -ko

-ren

-(e)an

Sinadura

Dokumentu kod.	2024UDIR0001-A24/01659
CUDO kodea	000.0081.AAAAFWFC.C.Y4Kt
Dokumentu Egiaztatzailea Verificador de documentos	https://uzt.gipuzkoa.eus/PortalV/r/eu/81/AAAFWFC.Y4Kt



Datu babesari buruzko oinarritzko informazioa	
Tratamenduaren Arduraduna	Zumaia Udalak Foruen plaza 1, 20750, Zumaia (Gipuzkoa) Datuak Babesteko Ordezkarria: Dbo@zumaia.eus
Helburua	Udalaren eta haren mendeko erakundearen aurrekontu-, ekonomia- eta kontabilitate-jardunaren ondoriozko informazio pertsonala kudeatzea.
Zilegitasuna	DBEDBLO 8.1 eta 8.2. artikulua: legezko betebeharragatik, interes publikoagatik edo botere publikoak baliatzeagatik buruturiko datuen tratamendua.
Komunikazioen hartzaileak	Zumaia Udalak Zerga Administrazioari, Gipuzkoako Foru Aldundiari eta dagozkion administrazio publikoei jakinarazi ahal izango dizkie zure datuak, tratamendu honen esparruan aplikagarria delako legez hala ezartzen bada.
Eskubideak	Datuak eskuratzeko, zuzentzeko, ezabatzeko, aurkatzeko, transferitzeko eta mugatzeko eskubideak erabiltzeko eskubidea du, bai eta Datuak Babesteko Euskal Bulegoan erreklamazio bat aurkezteko ere.
Informazio gehigarria	Datuak babesteari buruzko informazio gehigarria eta zehatza kontsulta dezakezu gure webguneko datuak babesteari buruzko atalean: https://zumaia.eus/eu/udala/datuen_babesa

Dokumentu kod.	2024UDIR0001-A24/01659
CUDO kodea	000.0081.AAAAFWFC.C.Y4Kt
Dokumentu Egiaztatzailea Verificador de documentos	https://uzt.gipuzkoa.eus/PortalV/r/eu/81/AAAFWFC.Y4Kt

II. ERANSKINA
DIRULAGUNTZA ZUZENAK: PROIEKTUAREN DATUAK

Elkartearen izena	IFK
Proiektu-jardueraren izena	

Aurrekontua (zer gastu eta diru sarrera espero diren; zer diru sarrera dituen erakundeak egitasmoa finantzatzeko; zenbat diru eskatu dien beste erakundeei):

Gastuak (azalpena)	Zenbatekoa (BEZ barne)
Gastuak, guztira	
Sarrerak (nondik datozen)	Zenbatekoa (BEZ barne)
Sarrerak, guztira / Total ingresos	

11

Zumaian, [DATA]

Sinadura

Dokumentu kod.	2024UDIR0001-A24/01659
CUDO kodea	000.0081.AAAFCWF.C.Y4Kt
Dokumentu Egiaztatzailea Verificador de documentos	https://uzt.gipuzkoa.eus/PortalV/r/eu/81/AAAFWCWF.C.Y4Kt

III. ERANSKINA
DIRULAGUNTZAK: BESTE LAGUNTZA ESKABIDEEN AITORPENA

Elkartearen datuak:

Elkartearen izena		IFK
Elkartearen helbidea		Herria
		PK
Telefonoa	Faxa	Hel. elektronikoa

Ordezkaria:

Izen-abizenak	NAN-AIZ- IFK
Elkartean duen kargua	

Jarduera hauetarako eskatutako edo jasotako beste laguntzak (jaso badira, zenbatekoa azaldu):

12

Administrazioa edo erakundea	Jasotako zenbatekoa
Ez dugu jaso edo eskatu beste inongo laguntzarik	

Nire erantzukizunpean goian azaldutako datuak egiazkoak direla adierazten dut.

Zumaian, [Data]

Sinadura

Dokumentu kod.	2024UDIR0001-A24/01659
CUDO kodea	000.0081.AAAFCWF.C.Y4Kt
Dokumentu Egiaztatzailea Verificador de documentos	https://uzt.gipuzkoa.eus/PortalV/r/eu/81/AAAFWCWF.C.Y4Kt



IV. ERANSKINA

Emakume eta gizonen berdintasunaren ikuspuntua noraino kontuan hartzen den proiektuan

Zumaiako Udalean, eta haren menpeko erakundeetan gizonak eta emakumeak berdina izateko zeharreko ekintzak ezartzeko jarraibideetan, baloratuko da, aurkeztutako eskaintzan eta diruz lagundutako proiektu edo jardueren, genero-ikuspegia txertatzea, oro har.

Elkarteari buruzko datuak:

Elkarteari buruzko izena		IFK	
Ordezkaritza izen-abizenak		NAN-AIZ	
Elkartean duen kargua		Sexua	
		Emakumezkoa	Gizonezkoa
		Ez bitarra ¹	
Zuzendaritza Batzordea, sexuaren arabera		Lehendakaria	
Emakumezkoak %		Emakumezkoa	
Gizonezkoak %		Gizonezkoa	
Ez binarioa ¹ %		Ez binarioa ¹	
Bazkide-kopurua	Bazkideak, sexuaren arabera		
	Gizonezkoak	Emakumezkoak	Ez bitarra ¹

Proiektuari buruzko datuak:

Jardueraren onuradunak, sexuaren arabera		
Emakumezkoak %	Gizonezkoak %	Ez binarioa ¹ %
Jarduerarako kontratatutako pertsonak, sexuaren arabera		
Emakumezkoak %	Gizonezkoak %	Ez binarioa ¹ %
Jardueran parte hartuko duten boluntarioak, sexuaren arabera		
Emakumezkoak %	Gizonezkoak %	Ez binarioa ¹ %
Kontuan hartu al da emakumeek jasaten duten desberdintasun soziala? Horri aurre egiteko neurriak hartu al da?		
• Hasierako diagnostikoa	Bai	Ez
• Proiektuaren helburuetan	Bai	Ez
• Proposatutako jardueretan	Bai	Ez
• Ebaluazioan	Bai	Ez

Dokumentu kod.	2024UDIR0001-A24/01659
CUDO kodea	000.0081.AAAAFWFC.C.Y4Kt
Dokumentu Egiaztatzailea Verificador de documentos	https://uzt.gipuzkoa.eus/PortalV/r/eu/81/AAAFWFC.Y4Kt



Aurreikusi al da inolako neurririk proiektuan parte hartzen duten pertsonen bizitza pertsonal eta familiarra jarduerarekin uztartzeko?

Bai

Ez

¹ Intersexualak eta transexualak

Dokumentu kod.	2024UDIR0001-A24/01659
CUDO kodea	000.0081.AAAFCWF.C.Y4Kt
Dokumentu Egiaztatzailea Verificador de documentos	https://uzt.gipuzkoa.eus/PortalV/r/eu/81/AAAFWCWF.C.Y4Kt



V. ERANSKINA
EUSKARAREN ERABILERA

JARDUERAREN IZENA				
	Euskaraz	Ele bitan	Oharrak	
Kartelak, esku-orriak...				
Sarrerak				
Txostena, agiriak, memoria...				
Aurkezpena				
Megafonia (esataria eta musika)				
Besterik				
ELKARTEAREN OHIKO ERABILERA				
	Euskaraz	Ele bitan	Gaztelaniaz	Oharrak
Zuzendaritzako bilerak				
Urteko batzarrak				
Deialdiak eta agiriak				
Aktak eta memoriak				
Webgunea eta sare sozialak				
Besterik				
Jarduera bakoitzean euskararen erabilera bermatzeko irizpideak baditu elkarteak? Zein?				
Elkarteak parte hartzen du euskara bultzatzeko ekimenetan? Zertan?				

Dokumentu kod.	2024UDIR0001-A24/01659
CUDO kodea	000.0081.AAAAFWFC.C.Y4Kt
Dokumentu Egiaztatzailea Verificador de documentos	https://uzt.gipuzkoa.eus/PortalV/r/eu/81/AAAFWFC.Y4Kt

VI. ERANSKINA

***Dirulaguntza lehen aldiz eskatzen dutenek edo kontu korrontea aldatu dutenek soilik bete**

HIRUGARRENAREN DATUEN ALTA		
HIRUGARRENA IDENTIFIKATZEKO DATUAK		
NAN/AIZ/IFK		
Izena eta bi abizenak		
Helbidea		
Posta-kodea	Herria	
Lurraldea		
BANKUKO DATUAK *		
BANKUA (IBAN kode eta guzti)		
BULEGOA	KOD	
KONTU-ZENBAKIA		
JABEA		
(*) OHARRA: Kontuaren jabeak hirugarrena bera izan behar du.		
Bankuaren adostasuna	Hirugarren interesdunaren adostasuna	Udalaren onespena
Sinadura eta zigilua	Sinadura eta zigilua	Sinadura eta zigilua

Data

20 ko (a)ren

Dokumentu kod.	2024UDIR0001-A24/01659
CUDO kodea	000.0081.AAAAFWFC.C.Y4Kt
Dokumentu Egiaztatzailea Verificador de documentos	https://uzt.gipuzkoa.eus/PortalV/r/eu/81/AAAFWFC.Y4Kt